

## Mondragon Unibertsitateak, Bilbon kokapen berria izango du

2013/03/22

Mondragon Unibertsitatea, 2013-2014 ikasturtean, Bilbon hasiko da lanean, Udalarekin lortu duen akordio baten bitartez.

Bilbao Berrikuntza Faktoria jarriko da martxan. Formazio zentro hau, berrikuntzan eta ekintzailetasunean espezializatuta egongo da eta bertan, unibertsitate ikasleek, langabezian dauden pertsonak, enpresa eta erakundeek, gradu eta masterreko ikasketak egiteko aukera izango dute, formazio iraukorreko programak, praktikak, gradu bukaerako proiektuak eta ikerketa eta transferentziako aktibitateak baita ere.

Mondragon Unibertsitateak Bilbon izango duen kokapen hau, gaur egun Bilbao Ekintza dagoen eraikuntzan egongo da.

MU-BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria), berrikuntza eta ekintzailetasunaren fabrika izango da eta hiriko gizarte eta ekonomia garapenerako motore bihurtu nahi du eta aldi berean, arlo honetan, nazioartean erreferente izatera iritsi nahi du.

[DEIAko artikulua irakurri](#)

[Proiektuaren txostena.](#)

